

Amaren iragana deskubritu nahian dabilen emakume baten istorioa du ardatz 'Chicago'-k

- Aitziber Etxeberriak idatzi du eleberria, eta Ereinek argitaratu.
- Aurretik 'Olivetti' kaleratua zuen, eta haren jarraipena da; halere, idazleak azaldu du hura irakurri ez dutenak ez direla galdua sentituko.
- Emakume zientzialarien figura aldarrikatu nahi du nobelak.

Amaia Jimenez Larrea

DONOSTIA— Farmazia ikasketak egin zituen unibertsitatean Aitziber Etxeberria idazleak. Gogoan du eskoletan gizonezko zientzialarien izenak besterik ez zuela entzuten: «Ematen zuen emakumeak ez zirela existitzen; ez zutela ikasi, ikertu... Baina, apur bat arakatuz gero, hor daude». Eta bota ditu izen batzuk: Rosalind Franklin, Lisa Meitner, Margarita Salas... Horiiek horrela, emakume zientzialariei nolabaiteko aitortza-edo egin nahi izan die Etxeberriak *Chicago* bere liburu berrian. «Emakumeak zientzian zeinen garrantzitsuak izan diren eta zer-nolako zailtasunak izan dituzten azaldu nahi nuen», gaineratu du. Erein argialetxearekin kaleratu du.

Duela sei urte plazaratutako liburu baten jarraipena da lan berria; *Olivetti*-rena (Erein, 2020), hain zuzen. Bertan, Ingrid izene-

ko gazteari aita hil zaio —ama ere, Elisa, hila du—, eta testamentua irakurtzera notarioarenera joandakoan, amak hil aurretik utzitako eskari baten berri izango du: Olivetti makina zaharra berarentzat izatea. Ingrid orduan hasiko da amaren iraganean aztarrika, eta *Chicago*-n ere lan horretan jarraituko du.

Ingrid eta haren familia Donostian bizi ziren, eta 1975ean haren amak Chicagora bizitzera joateko erabakia hartu zuen. «Itota sentitzen zen. Ama eta emaztea zen, baina aldi berean, zientzialaria ere bazen, eta etorkizun hobe baten bila joan zen». Han garatu zuen bere ibilbide profesionalaren parte bat, zentral nuklear batean. Bi istorio txirikordatzen dira eleberrian; batetik, Elisak 1975ean Chicagon izandako bizitza, eta, bestetik, Ingridek 2009an bere ama zein izan zen jakiteko asmotan Donostian abiatutako ikerketa.

Giro nahasia

Elisa Chicagora iritsitakoan giroa bero-bero dago, eta horren berri izango du irakurleak ere. Batetik, Gerra Hotzaren garaia da, eta AEBen eta Sobietar Batasunaren arteko lehia teknologiararen eta zientziaren esparrura ere zabalduta; hori bera bere larruan sumatuko du protagonistak. Bestetik, Vietnamgo gerra amaitu berri da, eta horren aurkako mugimendu sozial handia egon da. Gainera, arrazakeria handiko garaia da, eta herritarrek hori salatzeak makina bat mobilizazio egiten dituzte.

Protagonista ere gauzak aldatzeko asmoz iritsi da hirira; Etxeberria: «Idealista da, mundu berri bat nahi du». Baina, ez du lan erraza izango; lan egiten duen enpresak helburu jakin batzuetarako erabili nahi du energia nuklearra; Elisaren ustez okerra,



Aitziber Etxeberria, maiatzaren 29an, Donostian. JON URBE / FOKU

dena. Hori dela eta, talde klandestino batean parte hartuko du, erabilera on bat bultzatze aldera. Talde horrek, ordea, makina bat buruhauste ekarriko dizkio: arriskuak, beldurrak...

Bestalde, Elisa hil eta urte batzuetara, Ingrid «minduta» dago. Amaren inguruan ezer gutxi dakiela uste du, eta familiak ez diola argi kontatu zergatik hil zen. Hori dela eta, ama bene-benetan nor zen jakin nahi du. Ikerketa bat abiatuko du Ingridek, bere lagun Dustyarekin batera, Donostian, jaioterrian. «Ingriden bakea bilatu nahi du», gaineratu du idazleak.

Etxeberriak gustuko du historia, eta interesgarria iruditzen zaio 1970eko hamarkada; horregatik erabaki zuen Elisaren istorioa bertan kokatzea. Garai hartan Chicagon gertatutakoak urrun geratu badaitezke ere,

oraindik aktualitatea badutela uste du: «Gauza batzuek berdin jarraitzen dute». Zera ere gaineratu du: «Ondo dago jakitea zer gertatu zen, gaizki emandako pausorik berriz ez emateko».

Irakurlerik ez galtzea

Egilearen ustez, bi irakurle mota izango ditu *Chicago*-k: aurreneko eleberrira iritsi direnak —horientzako azalpen labur bat dago liburuaren hasieran, istorioa ulertu dezaten—, eta *Olivetti* irakurritako jarraipen gisa hartuko dutenak. Hain zuzen, Uxue Razkin Ereinek editorearen arabera, irakurlerik ez galtzea izan da erronka nagusietako bat; eta horregatik erabaki dute testuingurua ematen duen ohar hori jartzea.

Liburuaren azala Ivan Landak egin du, eta Etxeberriak haren lana azpimarratu du: «Liburuaren elementu guztiak jaso ditu». ●



«Emakumeak zientzian zeinen garrantzitsuak izan diren eta zer-nolako zailtasunak izan dituzten azaldu nahi nuen»

AITZIBER ETXEBERRIA

Idazlea

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus

Gaur, museorako sarrera doakoa da.



Erakusketa

Goya beltza, Motherwell beltza. Laurogei hondamen eta amildegi bat

STM

San Telmo Museoa